



2018-2019 ikasturteko goiburuaren kartelaren azalpena **LA SALLE GARA**

Mundu osoko salletarrok data berezi bat gogoratuko dugu ikasturte honetan: 1719ko apirilaren 7a. Egun horretan, Salleko Joan Bautista hil zen Rouenen (Frantzia). Duela 300 urte hil zen gure fundatzailea, eta, orduz geroztik, Salletar Eskolak mundu osoan zehar hedatu dira. Gaur, familia handi bat da La Salle, ikaslez, Anaiez, irakaslez, familiez, ikasle ohiez, zerbitzuetako langilez, animatzailez, katekistez, entrenatzailez eta abarrez osatutakoa. **GUZTIOK GARA LA SALLE.**



Aurtengo kartelak ideia hori adierazi nahi du, hain zuzen: eskuinean, fundatzailearen aurpegia: iragana, bere pertsona eta lekukotasuna. Salleko Joan Bautistak esker onez ikusten du nola garatu den berak hasitako lana. Ezkerrean, karteletik irtenez bezala, gaur egun hark abiarazitako historiaren zati garenak, karisma horretatik bizitzera deituak sentitzen garenak eta salletar familiaren kide guztiak.

Guztiok gara protagonista: irakasten duen irakaslea, mundua aurkitzen duen ikaslea, hezkuntza-komunitatearen zati den familia, kirol-jardueretan parte hartuz aire zabalean hazten diren gazteak, musikan eta artean hazten direnak, naturan eta berrikuntza-proiektuetan hazten direnak...

La Salleko logoa, izarra duena, gure nortasun-sinbolo bat da, eta hirugarren mendeurrenaren logoak aurtan ospatzen dugun urte berezia eta efemeride hori seinalatzeko Institutu osoak erabilitako goiburua ekartzen digu gogora: De La Salle 1719-2019. Bihotz bera. Konpromiso bera. Bizitza bera.

300 urte hauetan, salletar proiektuaren adierazpena aldatzen joan da, eta bizitasunez eta sormenez bete da. Horregatik, aniztasun hori adierazi nahi izan dugu kartelean, hainbat elementu txertatuz. Galdera hau egin dezakegu: zer iradokitzen digute kartelean ikusten diren elementuak? Ikasleei galde diezaiekegu.

Elementu horiei buruzko zenbait ideia:

- Adin askotako pertsonak: La Salle belaunaldi askok osatzen dutela adierazten du: haurrek, gazteek eta helduek.



- Hainbat nortasun: irakasle bat, abitua duen anaia bat, ama edo andereño bat, gazteak, neska-mutilak... Aniztasuna irudikatzen dute, eta familia bat garela adierazten dute. Anaien, sekularren eta salletar elkartearen artean partekatutako misioa irudikatzen du baita ere.
- Hainbat ekintza mota: irristatzen, ikasten, musika entzuten, laguntzen, entzuten, mugitzen, tableta erabiltzen, saskibaloian jolasten, behatzen, dantza egiten... Ekintza horiek guztiek mugimendua, sormena, berrikuntza eta jarrera irekia adierazten dute.
- Zuhaitzak salletar karismak 300 urte hauetan izan duen aniztasuna eta hazkuntza irudikatzen du, eta adar asko eta enbor bakar bat ditu.
- Irudien atzean, munduaren marrazkia dago, eta unibertsaltasunaz hitz egiten digu; izan ere, salletar ikastetxeak Lurreko txoko guztietan sakabanatuta daude, bost kontinenteetako 80 herrialdetan. Salletar ororen misiolari-zentzuaz hitz egiten digu baita ere, behar den tokira joateko prest baikaude.
- Eskauten zapiak eta Salletar Gaztea izarrek salletarrek gazteen artean sustatzen duten mugimendua ekartzen digute gogora: aisialdiko lana eta gure ikastetxeetan fedean bidea egiten hasteko egiten dugun proposamena.
- Arkatzek eta liburuek eskola salletar misioaren toki pribilegiatua dela gogorarazten digute; baina, eskolaz gain, gaur egun La Salleko obrek hezkuntza-premia ugari erantzuten diete, gure gizarte honetako pobreei eta baztertuei erantzuteko asmoz betiere. Arkatzek eta liburuek tradizioaz hitz egiten digute, baina tabletak eta musika-entzungailuek berrikuntza adierazten dute.
- FSC letrak Salletar Anaien edo Kristau Eskoletako Anaien siglak izan dira tradizionalki (**Fratres Scholarum Christianarum**), eta, gaur egun, salletar gazte-mugimenduaren hiru identitate-ikurrak bihurtu dira: fedea, zerbitzua, komunitatea (ingelesez: Faith, Service, Community; frantsesez: Foi, Service, Communauté; italieraz: Fede, Servizio, Comunità; portugesez: Fé, Serviço, Comunidade; gaztelaniaz: fe, servicio, comunidad; galegoz: Fe, Servizio, Comunidade; katalanez: Fe, Servei, Comunitat...).
- Kartelaren koloreak: horia eta urdina gure erakundearen bi koloreak dira, eta gaur egun gazteek asko erabiltzen duten teknika bat erabili da marrazkian, *bic* bolalumeekin egindako marrazkien teknika, hain zuzen. Google-n teknika hori bilatuz gero, milioika emaitza agertzen dira.

Salletar izarra kartelaren hainbat tokitan agertzen da (ikasleei 7 izarrek aurkitzeko eska diezaiekegu): goiburuan, FSC siglen ondoan, patinean eta gazteen elastikoetan, bihotzaren ondoan. Izar hori ezagutu dugu gure haurtzaroan, gaztaroan edo heldutasunean, eta bizitza osoan gidatuko gaitu: fedearen izarra da. Ipar izarrek marinela gauez gidatzen dituen bezalaxe, La Salleko izarrek bizitzako une guztietan gidatzen gaitu gu.

Kartelean, hainbat begirada mota bereiz ditzakegu, eta “begiratu harago” aldarrikapenarekin lotzen dira. Batzuek guri begiratzen digute, ikusle moduan; beste batzuk elkarrekin zerbait egiten ari dira; beste batzuek begiak itxita dituzte edo zerurantz begira daude, bihotzarekin eta Jainkoarekin bat egin nahian.

Bokazio-kulturaren ikuspegitik, salletar familia karismatikoaren barnean dauden askotariko



bokaziozko erantzunak azpimarratu nahi ditugu. Pertsona bakoitzak hauxe galde dakiok bere buruari: zertara deituak sentitzen gara? Nola lotzen dira salletar karismak eskaintzen diguna eta nire bokaziozko erantzuna? Salletar sentitzen naiz? Zertan zehazten da nire erantzuna? Haur, gazte, heldu edo zahar izan, deia jasoko dut, Jainkoak beti deitzen baitu, egunero eta pertsona bakoitzari zehazki. Askotariko bokazio-erantzun salletarrak aberastasun handia dakarkite gaur egun Elizari: asoziatu sekularrak, lankideak, Signum Fidei, Salletar Gazteak, Ahizpak, Anaiak...

Salleko Joan Bautista ere ageri da kartelean; zahartzaroaren zantzuak ikus daitezke haren aurpegian: 68 urterekin hil zen unea gogora ekarri nahi izan dugulako agertzen da horrela, baina La Salle ez dago hilda, bizirik jarraitzen du mundu osoan zehar bizi diren eta beren bizitzak premia handienak dituzten haurrak eta gazteak heztera zuzendu dituzten salletar guztien bihotzetan. Izan ere, horrelakoak egiten ditugunean, **LA SALLE GARA:**

- Premia handienak dituztenengana hurbiltzen garenean eta gure bihotza ukitzen uzten diegunean.
- Mundu hau hobea izan dadin konpromisoa hartzen dugunean.
- Jainkoaren deia entzuten dugunean eta erantzuten diogunean.
- Errealitatea oso iluna izan arren, fedez eta itxaropenez betetako begiekin begiratzen diogunean.
- Bakarrik dagoena eta laguntza behar duena bihotzez hartzen dugunean.
- Familia eta komunitate garenean.